

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

388

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 31koa, Hezkuntzako sailburuordearena, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntzak erabakitzen dituen (EIMA 2.0).

Euskarazko ikasmaterial digitaletarako laguntza-bideetara dei egin zuen Hezkuntza Sailak 2018ko uztailaren 17ko Aginduaz (2018ko abuztuaren 8ko EHAAn). Hori dela eta, ebazpen-batzordearen proposamenez honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2018ko uztailaren 17ko Aginduan adierazitako prozedurari jarraituz, guztira banatzeko dauden 360.000 euroko diru-partidatik, ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren diru-laguntzak esleitzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eta III. eranskinetan aipatzen diren ikasmaterialei diru-laguntzarik ez ematea. Diru-laguntzarik ez ematearen arrazoiak ondokoak dira: II. eranskinean jasotzen dira aginduaren 16.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, Proiektuaren Egitura, Edukiaren Egokitasuna, Demoa edota Aurrekontua ataletan gutxieneko maila lortu ez dutenak, III. eranskinean jasotzen direnak, kanpoan gelditu dira deialdiko 15. artikulua betetzen ez dutelako. Hau da, eskatzaile bakoitzeko gehienez, 2 proiektu lagunduko direla dioena.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpena Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, hamar (10) egun naturaleko epea izango du diru-laguntza esleitu zaion produktore bakoitzak bere produkzioa egingo duen ala ez ziurtatzeko. Halaber, hilabeteko epea izango du lan-egutegia aurkezteko. Esleitutako diru-laguntzari berariaz uko egiten ez badiote onuradunek, kudeaketa organoari idatziz, esleitutako diru-laguntza onartutzat joko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa egin dezaiokete interedunek Hezkuntzako sailburuari, ebazpena Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Ebazpen honetako euskal eta erdal idazkien artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik hura hartuko da korapiloa askatzeko gidari.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 31.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN MAITE ALONSO ARANA.

2019ko urtarrilaren 24a, osteguna

I. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO DUTEN PROIEKTUAK

Creative Commons			
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua	Diru-laguntza
2018/005CC	Badihardugu Deba Ibarreko Euskera Alkartia	Herritarren Ahotsa. Transmisioa Ikasgelan. Euskara eta Literatura I	24.000,00
2018/008CC	Fundacion Asmoz de Eusko Ikaskuntza	Hizkuntzarekin jolasean	30.000,00
2018/006CC	Universidad de Navarra	Integralak	28.497,76
2018/003CC	Andres David Espinoza Alvarez	Emakumeak bidean	12.732,00
		Orotara	95.229,76

Jabetza Pribatua			
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua	Diru-laguntza
2018/007 JP	Elkarlanean SL	EKI LH6. Euskara e-liburua	30.000,00
2018/001 JP	Azul Multimedia SL	Programazio-laboretegia	30.000,00
2018/004 JP	Elkar-Ikastolak zerbitzuak SL	EKI LH6. Ingurunea, Gizarte eta Natur Zientziak e-liburua	30.000,00
2018/002 JP	Elkar-Ikastolak zerbitzuak SL	EKI DBH1 Matematika e-liburua	30.000,00
2018/006 JP	Euskal Herriko Ikastolak S Coop Europea	EKI DBH Matematika e-liburua 3	30.000,00
2018/008 JP	Euskal herriko Ikastolak Soop Europea	EKI DBH Matematika e-liburua 4	30.000,00
2018/013 JP	Erein SA	Matematika DBH 1 on-line	30.000,00
2018/010 JP	Gestionet Multimedia SL	Galderak.eus	18.012,80
2018/011 JP	Gestionet Multimedia SL	Etorkizunari begira	21.616,00
		Orotara	249.628,80

II. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Proiektuaren Egitura, Edukiaren Egokitasuna, Demoa edota Aurrekontua ataletan gutxieneko maila lortu ez duelako,
deialdiaren 16.2 artikuluan adierazitakoaren arabera

Creative Commons		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua
2018/007CC	Gestionet Multimedia SL	Aditz-jokoa
2018/001CC	Miren Garbiñe Candina Acebes	Pikto-Soinuak
2018/009CC	Ikasplay	Azkarrena Bizkorrena!
2018/004CC	Andres David Espinoza Alvarez	Parke naturalak ezagutu
2018/002CC	Tumaker S.L.	Material didáctico en euskera para la inclusión de tecnologías de fabricación aditiva en centros educativos

Jabetza Pribatua		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua
2018/009 JP	Elkarlanean SL	EKI DBH4. Fisika-Kimika e-liburua

III. ERANSKINA

LAGUNTZA JASOKO EZ DUTEN PROIEKTUAK

Hurrengo horiek kanpoan gelditu dira deialdiko 15. artikulua betetzen ez dutelako, hau da, eskatzaile bakoitzeko gehienez, 2 proiektu lagunduko direla dioena. Eskatzaile hauek 3 proiektu aurkeztu dituzte, eta hirurek betetzen dituzte deialdiak ezarritako puntuazio minimoak. Beraz, 3 horietatik, orotara puntuazio txikiena lortu duten proiektuak kanpoan gelditu dira

Jabetza Pribatua		
Espedientea	Entitatea	Ikasmaterialaren izenburua
2018/003 JP	Elkar-Ikastolak zerbitzuak, S.L.	EKI DBH2. Matematika e-liburua
2018/012 JP	Euskal Herriko Ikastolak S. Coop. Europea	EKI LH 6 Matematika